



HARREMANAK


ERAKARRI BEZERO BERRIAK - KULTURISTA
- INFLUENCER

MANTENDU - AKTIBITATEAK (web orrian)
- BERRIAK (web orrian)
- AKTUALIZAZIOAK (diseinua, programazioa)

SARE SOZIALAK:

Instagram: @gerygou

Gmail: gougerygou@gmail.com



gougerygou@gmail.com

Bezeroekin harremana barne-egitura garrantzitsuenetarikoa bat da. Beraz, bezeroekiko harremanak sare sozialeei esker ahalbidetuko ditugu. Sare sozialak gure gizarteko oso atal garrantzitsuak dira, batez ere jende askorekin komunikatzeko eta bezeroekin harremanak indartzeko. Guk erabiliko ditugun sare sozialak hauek dira:

Instagram (@gerygou) eta gmail (gougerygou@gmail.com). Bezeroekin harremanetan egongo den funtsezko sare soziala instagram izango da. Bertan, gure produktua publizikatuko dugu modu erakargarri eta simple batean produktuari buruzko berriak argitarauko ditugu. Web orrian dagoena modu praktikoa batean egongo da. Gmail berriz, bezeroek dituzten eskaerak, galderak edo dudak argitzeko erabiliko dugu.

Hauek, web orrian agertuko dira momentu oro. Web orrian gauza asko ipiniko ditugu: botilaren salmenta, bertan botilaren informazio tekniko eta botilaren funtzioak azalduta egongo dira (mobila modu egonkor batean eustea, grabatzeko posibilitatearekin, ura gordetzea eta mobila kargatzeko ahalmena). Web orriaren funtzioa, botilarekin zerikusia duen informazioa modu simple batean argitaratzea izango da. Horretarako, bai diseinua bai bertan egindako aldaketak eta agiriak guk egingo ditugu. Web orrian, bezeroekin kontaktuan egoteko ere erabilgarria izango da. Beheko zonaldean, bezeroek iruzkinak jartzeko ahalmena izango dute.

Bezeroak erakartzeko eta gure produktuak saldu ahal izateko publizitatea egingo dugu. Publizitatea, bertako gimnasioetan jarriko dugu baita supermerkatuetan ere (segementuen arabera). Gure produktua nagusiki adin guztietarako denez, eremu ezberdinetan egingo



dugu publizitatea. Alde batetik, sare sozialen bidez egingo dugu publizitatea. Gure produktua bertan argitaratuko dugu eta bezeroak erakartzen saiatuko gara, ondoren gure produktua erosteko interesa izan dezaten. Gainera, kirolari famatuekin harremanetan jarri eta haiekin negoziak egiteko asmoa dugu. Haiekin geratuko gara eta botila erabiltzen duten bitartean grabatu egingo ditugu. Horrela, famatu hauek gure botilarekin kirola eta ekintzak egitearen truke eta gero hori haien sare sozialetan agerrarazi eta patrozinatzearen truke, diru kopuru bat emango diegu. Kirolari hauek, kirol ezberdinetakoak izango dira, ahalik eta jende gehien erakartzeko kirolaren segmentu guztietan (Fitness mundu baterako bideratzen dituzten pertsonentzat). Egunerokotasunean erabiliko duten segmenturako, pertsona ilustratu batekin kolaboratuko dugu, influencer edo internetekin zerikusia duen pertsona batekin batez ere. Horrela bezero berri asko erakarriko genituzke pertsona famatuen eragina handia baita merkatu mailan.

Hauek mantentzeko, web orrian produktua hobetzeko aktualizazioak egingo ditugu; programazioari buruzkoak, bateriaren iraunpena adibidez. Baita ere, fitness segmenturako kirol ariketak igoko ditugu, ariketa bakoitzak zer muskuluri eragiten dion azalduz. Aktibitate hauek, astero aldatzen joango dira web orria aktualizatuz.

Hau "berriak" erantsitako atal batean egongo da. Bertan, aktualizazioaz eta aktibitateaz gain, diseinu berriak sortuko ditugunez, sortutako diseinu berriak argitaratuko ditugu.

Botilak berrerabiltzeko ahalmena eskainiko dugu, hau da, bezeroek botilaren aktualizazioa nahi badute, bezeroek duten botila zaharra (aktualizazioarik ez duena) itzuli eta gero, bigarren botila bat emango diogu, zaharra berrerabiliz. Izan ere, aktualizazio hau bere kostua izango du, azken finean botila hobetzen ari zarelako. Beraz, bi modu egongo dira botilaren aktualizazioak erosteko: botila berria erosiz edo modu merkeago batean, botila zaharra berrerabiliz.

Harreman mota hau pertsonala eta aurrez aurrekoa edo automatizatu izan daiteke, web-aplikazioak edo erantzungailu automatikoak erabili egingo ditugu web orrian. Bezeroekiko harreman mota anitzak daude. Botila, Forum dendetan egongo denez, laguntza pertsonala edukiko dugu dendea fisikoa bait da. Web orrian berriz, zerbitzu automatizatuak edukiko ditugu, botilari egindako galdera tipikoak (jendea asko galdetzen dituen galderak) erantzuteko. Kasu zehatz batean, guk erantzuko dugu gure sare sozialen bidez (Instagram eta Gmail). Beraz, guk bezeroekin komunikatzeko oinarria sare sozialak dira